

JOSTAILUAK EROSTEKO GIDA

Gabonak ate joka ditugun honetan, haurrei erosten dizkiegun jostailuetan jarri nahi dugu arreta. Izan ere, maiz ez dugu behar bezainbesteko arreta jartzen erosten dugun horretan, nahiz eta oso garrantzitsua izan haurren garapen egokirako. Horrenbestez, gure haurrentzat jostailu egokia aukeratzeko, kontuan izan behar dugu jostailua beraren kalitatea eta umeen adina; baina bereziki, jostailu hauek transmititzen dituzten balore eta jarreretan jarri nahi dugu arreta.

Edozein jostailu erosi aurretik, beraz, kontuan hartzekoak:

	BAI	EZ
Jostailu honekin neska zein mutilek jolastu dezakete?		
Jostailu hau aproposa da umearen adinerako? Adinaren arabera gomendioak ditu?		
Behin eta berriro jolas daiteke berarekin?		
Jostailu honekin bere lagunekin jolastu ahal izango du era kooperatibo batean, gainontzeko umeen berezitasunak errespetatuz?		
Jostailuen bidez, umeak irudimena landuko du?		
Lagunduko dio umeari estereotipo sexistak ez errepikatzen?		
Kultur aniztasuna eta naturarekiko errespetua errazten duen jostailua da?		
Jostailu hau nire seme edo alabarekin konpartituko dut?		
Berdinen arteko harremanak eta komunikazioa bultzatzen eta sendotzen duen jostailua da?		
Erabilera bat baino gehiago daukan jostailua da?		
Jakin mina eta sormena garatzen laguntzen duen jostailua da?		
Telebistan iragartzen dute? Zer nolako iragarkia da? Estereotiporik gabeko iragarkia da?		
Liburu eta ipuinetan: izenburu eta marrazkietan, emakume eta gizonen arteko oreka dago?		
Hizkuntza eta jarduera aldetik estereotipo ez sexistak daude?		
Pertsonaia protagonistek ez dituzte rol klasikoak erreproduzitzen?		

Badakigu jostailuen aukeraketan faktore askok eragiten dutela, eta maiz ez dela erraza aipatutako guztiak kontuan izatea. Baina garrantzitsua iruditzen zaigu honen inguruko hausnarketa egitea eta pixkanaka urratsak ematea.